



ARRANO – ETXEA

Azken urteetan bezala, Gipuzkoako Foru Aldundiko, Landa Ingurunearen Garapenerako Departamentua, batetik eta Aranzadi Zientzia Elkarteak bestetik, sinatutako konbenioari esker. "Arrano-Etxea" (Igeldo, Donostia) egoitza, basa animalia, zaintza eta berreskuratze lanetan jarraitu du.

Aurten 344 animalien sarrera izan dugu, 67 espezie edo mota desberdinetan banaturik.

Azken urteetan bezala, 2008an sarreraren zergatiaren kopuru handiena Argaltasuna izan da. Itsas hegaztiak dira gehienak, hori bai, urtean zehar banaturik eta ez beste urteetan bezala itsas ekaitzak jasan ondoren.

Aipatzekoa da, Pozondurik izan dugun sarrera, 12 animaliatik, 10 Hegazti Harrapariak izan dira, batez ere Buteo buteo espeziekoak 8 ale izanik pozonduak.

Azkenik eta beti bezala TIROA jasotako animaliak. Hegazti Harrapariak lehen postua mantentzen dute zergatiaren sarrera mota honetan 32 hegaztirekin, TIROKATUEN % 65,3 izanik, eta hauetatik 8 hegaztien harraparien sarrera, ehiz denboraldi itxita zegoenean gertatu da.

Gai honekin lotuta ere, Gau Harraparietan ez da izan tirokatuen sarrerarik, beste urtetan gertatu oi den bezala, (Scolopax rusticola) zeletako ehizarekin batera izaten bai ziren hegazti mota hauen tirokaturiko sarrera.